



Oria ibaira isurtzen ziren ur zikinak Adunako araztegira bideratu dituzte

Ama Kandida etorbidea eraberritzearekin batera, 2013tik prest zegoen lotunera bideratu dituzte Bazkardo-Leizotz aldeko ur zikinak / 11

URA

MATRIKULA
OTSAILAREN 2TIK I3RA

EGAPE
IKASTOLA
urnietarren eskola
publikoa

BILERA INFORMATIBOAK

URTARRILAK 28
DBH
17:00 Azkorte


URTARRILAK 27
2 URTE
17:00 Etxeberri

943009275 HLH/EIP
943899425 DBH/ESO
www.egape.eus



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



BERTSOLARITZA

BERTSOZALE.EUS GIPUZKOA

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa

Hirugarren aldia izango da Gipuzkoan taldekako txapelketa egingo duguna eta inoiz baino parte hartze handiagoa izango da aurtengoa. Aurreko biak 1999an eta 2017an izan ziren.

Banakako txapelketak norbanakoen arteko lehia oinarritzen dira. Bertsogintza modu kualitatiboan hazteko baliagarriak dira, noski, bertsolari bakoitza duen onena ematen saiatzen baita. Taldekakoan, berriz, helburuak bestelakoak dira. Eskualde mailan, bertso eskolen arteko saretzea eragingo duen txapelketa izango da. Egun, plazan kantatzeko aukera gutxi duten bertsolarientzat erakargarria izango da, eta beraien perfila ahalik eta anitzena izango da. Bertso komunitate osoa

elkartuko du txapelketak; bertsolariak, epaileak, gai jartzaileak, antolatzaileak, bertsozaleak... bat eginda ariko dira saioen antolakuntzan eta oraindik bertsoa iritsi ez den espazioetara iristen saiatuko da herriartekoa.

Honakoa izango da Taldekako txapelketa honen taldekatze eredua. Talde bakoitzak bost partaide izango ditu, gutxienez. Hiru bertsolari: saioetan hiru edo lau bertsolarik abestuko dute, baina taldean kide gehiago ere izan daitezke. Gai-jartzaile eta epaile bana ere izan beharko dute taldeek. Eta ordezkari bat ere izango dute komunikazio edo antolaketa lanak egiteko.

57 taldek hartuko dute parte herriartekoan. Guztira 350 pertsona arituko dira aurtengo edizioan.

Faseei dagokionez, lau fasetan banatuko da Herriarteko Txapelketa: lehen fasea, bigarren fasea, finalaurrekoak eta finala.

Zortzi eskualde, lehen fasean
Lehen fasea izango da, akaso, bereziena. Gipuzkoako zortzi eremu zehaztu dira: Buruntzaldea, Urola, Urola-kosta, Debarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri, Donostia eta Oarso-Bidasoa.

Eskualde bakoitza izango da fasearen sortzaile eta arduraduna, urtarrilaren 18tik martxoaren 28ra bitarte jokatu da. Denbora tarte horretan 100 saio inguru antolatuko dira Gipuzkoan barrena. Herri eta eskualde bakoitzak bere errealitateari erantzungo dio eta bakoitzak

bere ezaugarri eta errealitate soziolinguistikoa erantzunez antolatu ahal izango du fasea. Fase honetatik zortzi talde garaile aterako dira, eskualde bakoitzetik bana.

Fase honetan ia 40 bertsolari arituko dira lehen aldiz oholtzan, eta beste horrenbeste lagun antolaketa lanetan.

Azken fasea, martxoan; finala maiatzean

Lehen fasearen ostean, bigarren fasea jokatu da, lau saioekin. Lehen fasean “irabaziko” duten zortzi talderen artean jokatu dira saioak, eta eskualde bakoitzak izango du ordezkari bana.

8 talde horietatik 4 sailkatuko dira final-aurreko saioetara. Bi saio jokatu dira fase honetan, areto handiagoetan.

Finala maiatzaren 30ean jokatu da Aiako probalekuan. Finalak lehen fasearen esentziari eutsi nahi dio eta bertso-bazkaria egitea aurreikusten da. Finala baino gehiago, bertsolaritzaren festa izan nahi du, elkargunea.

Azken faseko txartel guztiak www.bertsosarrerak.eus webgunean jarriko dituzte salgai, martxoan bertan.

Gipuzkoako Herriartekoa jarraitzeko www.bertsozale.eus webgunean bilduko da informazio guztia, Herriartekoaren atarian: www.bertsozale.eus/gipuzkoa-herriartekoa-2026. Sare sozialetan, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen profilen bitartez egingo zaio segimendua, #herriartekoa traola erabilia.

www.aiurri.eus**Aiurri eskuragarri:**

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.**Erredaktoreak:** Xabier Lasa.**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.**Kudeaketa, harpidetza:**

Garbifé Ugartemendia.
idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak:

Rocio Arias (Andoain),
Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.**ISSN:** 1698-4870.**Tirada:** 4.000 ale.**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

Urnietako
udala



Dozenaka lagun elkartu zen, astearte iluntzean, San Juan plazan. AIURRI

Urnietako azken eraso matxista salatzeke jendetza elkartu zen herriko plazan

Urnietako kiroldegian eraso matxista gertatu zela salatu zuen Itaia Buruntzaldeak, astelehenean. Eta erreakzioa berehalakoa eta jendetsua izan zen: biharamunean jendetza elkartu zen San Juan plazan

Jon Ander Ubeda URNIETA

Aurreko astean, Urnietako kiroldegian, emakumezko bat kirola egiten ari zela gizonetzko bat grabatzen hasi zitzaion. Eta, gainera, salatu dutenez, gizonetzko horrek irudi horiek hirugarren pertsonekin partekatu zituen. Eraso horren aurrean deialdia egin zuen Itaia Buruntzaldea mugimenduak. Eta erreakzioa berehalakoa bezain jendetsua izan zen: biharamu-

nean dozenaka lagun elkartu ziren, San Juan plazan, gertaturikoa salatzeke.

Udalerrian bertan izandako gertaera gaitzetsi eta biktimari elkartasuna adierazteko ekitaldia izan zen, finean. Azpimarratzekoa da astearte iluntzean bildu den jende kopurua, Urnietan ohikoa dena baino askoz handiagoa izan baitzen partaidetza. Hala, Itaiaz gain, mugimendu feministako eta alderdi politikoetako orde-

karitza zabala elkartu zen. Tartean, Segurado alkatea eta EAJ-PNVko, EH Bilduko eta PSE-EEko zinegotzi ugari.

Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gaitzespena

Adierazpena argitara eman zuen Udalak, astelehenean bertan: "Urnietako Udalak irmotasun osoz gaitzesten du udalerrian gertatutako eraso sexista. Udalak argi utzi nahi du ez duela

Itaia Buruntzaldearen adierazpena

"Gaur hemen bildu gara, pasa den asteko ostegunean emandako eraso salatu, eta erasotuari gure babesa adierazteko.

Gizon batek emakume bat erasotu zuen Urnietako kiroldegian. Honek, emakumea grabatu zuen kirola egiten ari zela. Hori gutxi ez, eta grabatutako irudiak zabaltu egin zituen.

Egunerokoan bizi ditugu emakumeok matxismoaren eraginak/ondorioak: gutxiespenak, irainak, bortxaketak, sexu erasoak... Gainera, indarkeria matxista kasuetan emakumeok gara gizartetik baztertuak eta estigmatizatuak garenak: gu gara gure etxebizitzak utzi behar izaten ditugunak, babes neurriekin itota eta intimitaterik gabe bizi behar dugunak, gu gara kalean seinalatuak garenak eta errudun sentiarazten gaituztenak.

Egun gainera, ideia errekaezioaren gorakadak, ideia eta jarrera matxisten normalizazioa eragin du. Eskuineko posizioek matxismoaren existentzia ukatu eta emakumeon irudi otzana indartzeko saiakera egiten dute etengabe.

Egoera larri horren aurrean posizionatzeko momentua da, emakumeok jasaten dugun indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurrean bi aukera ditugu: matxismoaren konplize izan edo matxismoaren aurka borrokatu. Eta borroka honetan, behar beharrezkoa da eraso oro salatzea. Ez dugu onartuko erasotzaileen inopuntia; hauek seinalatzea ezinbestekoa da.

Itaiatik jarrera eta ideia matxisten aurka borrokatzen jarraituko dugu: batetik, indarkeria jasan duen emakumea defendatzeko eta babesteko baldintzak bermatuz; bestetik, eraso ororen aurrean irmotasunez eta eraginkortasunez erantzunez. Zentzu horretan, beharrezkoa da, matxismoaren aurkako kontzientziazio lana eta borroka indartzea, matxismoari aurre egingo dion mugimendu indartsua eratuz.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatu!".

inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten erasorik".

Gipuzkoako Foru Aldundiak, adierazpen instituzional baten bidez, bat egin zuen deialdiarekin: "Urnietan gertatutako era-

so sexistaren aurrean gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu. Era berean, foru erakundeak gertutasuna eta elkartasuna adierazi nahi dio emakume biktimari, baita haren senideei eta gertuko pertsoneri ere".

Euskal Herriko Mus Txapelketa Andoaindik abiatuko da

Abiatzear da txapelketaren XVII. edizioa. Hitzordua ostiral honetan da, Irunberri elkartearen, 22:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Izen-ematea dagoeneko zabalik dago Irunberrin. Prezioa, biko-teka, 20 eurokoa da. Egunean bertan ere izena emateko aukera izango da. Euskal Herriko Mus Federazioak txapelketara-

ko prestatutako arauen arabera jokatu da. Arauak eskura izango dira lehen saioan, baita www.ehmus.eus webgunean ere. Txapelketaren laguntzaileak honako hauek dira: Errigora ekimena, AIZU! aldizkaria, AEK

euskaltegiak, Urribitarte, Laboral Kutxa, Koparia, Ahotsa, Izarkom eta Villabonako Udala.

Euskal Herrian barrena

Egunotan, kanporaketak jokatuko dira eta, ondoren, lurraldekako eta nazio mailako finalak.

- Lehen kanporaketak: Otsailaren 22ra biarte.
- Herrialdeko kanporaketak: Martxoaren 7an.
- Euskal Herriko XVII. finala: Martxoaren 28an, Amasa-Villabonan.



Mus txapelketa, iaz, Iparraldeko kanporaketan. EHMUS



Sindikatuak protesta egin zuten Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan. ENBA

Andoaindik, Irun-Hendaia arteko mugara

Aurreko astean EHNE, ENBA eta UAGN nekazal-sindikatuak mobilizatu ziren, dermatosisaren kontrolik gabeko hedapenaren aurrean eta Mercosur akordioaren sinaduraren ondorioz lehen sektoreak bizi duen babesgabetasuna salatzeke. Mugara iritsi zeneko zutabe bat Andoaindik abiatu zen, hain zuzen, Karrika aldetik. Bertan ipini zuten hitzordua Tolosaldeko, Aiztondoko eta Andoain aldeko abeltzainek. Mugan sindikatuak adosturiko manifestua irakurri zuten.



AIURRI

Oinezkoek lehentasuna duten seinaleztapena

Idiazabal kalean, Zaldundegi aldean, oinezkoek lehentasuna dutela nabarmentzeko eta segurtasuna hobetzeko pintaketak lanak amaitu berri dira. Abiadura moteltzea ezinbestekoa da.



UDALA

"Nire ongizate emozionala zaintzen" tailerra antolatu dute

Osakidetza badu "Paziente Bizia" izeneko programa eta Andoaingo biztanleek parte hartzeko aukera dute

Erredakzioa ANDOAIN

Osakidetza badu "Paziente Bizia" izeneko programa eta urte osoan hainbat tailer eta ikastaro antolatzen dituzte. Horietakoa da "Nire ongizate emozionala zaintzen" izenekoak. Zertan datza? Horrela deskribatu dute tailerra deitzaileak: "Autozainketa hitzak aldaketa emozionalak kudeatzen ikastea esan nahi du, besteak beste. Tailer honetan tresna batzuk ezagutuko eta jarriko dituzu praktikan, zure emozioak behar bezala ezagutzen eta kudeatzen lagunduko dizutenak, haiekin ahalik eta ondoen bizi ahal izateko".

Andoaingo biztanleek parte hartzeko aukera dute baina, oraingoan, interesatuek Tolosara edo Zizurkilera mugitu beharko dute. Tailerrean 2 ordu eta 30 minutuko saioak egingo dira, astean behin, 8 astez. Saioak taldean egiten dira eta horietan

izena eman dutenen partaidetza sustatzen da. Osasun zentroan eman daiteke izena, baina baita helbide elektronikora eskaera bidez. Bertan pertsonaren izen-abizenak eta kontakturako datuak jarri behar dira: pacientteactivo@osakidetza.eus / 943 006 551.

Xehetasunak

Tokia: Tolosako kultur etxea.

- Hasiera: 2026/02/03.
- Eguna: Asteartea.
- Saio kopurua: 8.
- Ordua: 10:30-13:00.
- Modalitatea: Aurrez aurreko prestakuntza.

Tokia: Zizurkilgo Plazida Otaño Udal Liburutegia.

- Hasiera: 2026/02/12.
- Eguna: Osteguna.
- Saio kopurua: 8.
- Ordua: 10:00-12:30.
- Modalitatea: Aurrez aurreko prestakuntza.

KOMUNITATEA

BETERRI-BURUNTZA GARAPEN AGENTZIA BETERRI-BURUNTZA

Doako formakuntza-ikastaroak

Hasi da sukaldaritzako ibilbidea, eta otsailaren 16an jarriko da martxan Tamaina Handiko Arotzeria eta Kudeaketa ibilbidea, Emaus Gizarte Fundazioa eta Arotzgi erakundeen eskutik. Prestakuntza honek zurgintzaren arloan kualifikazio tekniko eskaintzea du helburu, sektorean dagoen langile kualifikatuen eskariari erantzuteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin Lanean egitasmoaren baitan, aste honetan abiatu da Sukaldeko Oinarritzko Eragiketak ibilbidea, Erroak-Sartu erakundearen eskutik. Ekimenaren helburua ostalaritza sektorearen beharrei erantzutea da, eskualdean langabezia-egoeran dauden pertsonen laneratzea sustatuz.

Ibilbideak formakuntza teoriko-praktikoa eskainiko du, eta horrez gain, parte-hartzaileek gaitasun digitalak, hizkuntza-gaitasunak eta zeharkako konpetentziak landuko dituzte, hala nola komunikazio eraginkorra,



ESTUDIOFORMACION.COM

talde-lana eta moldagarritasuna. Guztira 15 pertsonak hartuko dute parte, eta amaitzean ziurtagiri profesionala eskuratzeko aukera izango dute.

Bestalde, otsailean Tamaina Handiko Arotzeria eta Kudeaketa ibilbidea jarriko da martxan, Emaus Gizarte Fundazioa eta Arotzgi erakundeen eskutik. Prestakuntza honek zurgintzaren arloan kualifikazio tekniko eskaintzea du helburu, sektorean dagoen langile kualifikatuen eskariari erantzuteko.

Ibilbide horretako formakuntza teknikoak

305 ordukoa izango da, eta bertan, besteak beste, tamaina handiko zurezko hondakinen berreskurapena eta errebalorizazioa, arotzeriako zerbitzuetako oinarritzko prozedurak, eta zurezko hondakinen sailkapena eta lehengoratzeko landuko dira. Horrez gain, parte-hartzaileek 50 orduko prestakuntza jasoko dute gaitasun soziolaboral eta digitalen inguruan, eta 90 orduko praktikak egiteko aukera ere izango dute sektoreko enpresetan.

Harremanetarako, idoia.vidaurrazaga@emaus.com helbidera idatzi daiteke, edo 690 175 982 telefono zenbakira deitu.

KOMUNITATEA

SALESIAR IKASTETXEA URNIETA

On Bosko eguna



SALESIAR IKASTETXEA

Aurten ere, Urnietako Salestarrak ikastetxea alaitasunez, gogo biziz eta ekintzez bete da Gazteriaren Astea ospatzeko, guztiak ere gure zentroaren balioak islatzen dituen ekitaldiak izango direlarik: kirola, kultura, ekonomia eta gizartea. Aurten, ikasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren arteko elkarbizitza eta giro ona sustatzeko, berrikuntzaz eta une ahaztezinez beteta etorri da programa.

Gaztedi Astea
Hilaren 22tik 29ra, hitzordu ugari ikastetxean: hitzaldiak, lehiaketak, solasaldiak, ikasleen lanen erakustaldia...

On Bosko Txapelketa
Urtarrilaren 15etik 29ra ospatuko dugu. Jarduera nabarmenen artean, damak, ping-pong, sudokua, lau ilaran eta beste hainbat kirolerako txapelketak; ondo pasatzeko aukera izateaz gain, estrategia, sormena eta lankidetzaren bezalako trebetasunak lantzeko aukera ere badira.

On Bosko eguna
urtarrilak 30, ostirala
10:00 Ospakizuna eta LH-2ko ikasleei omenaldia eta agurra
11:00 Tortilla Txapelketa.
13:00 Festaren amaiera.
13:30 Bazkaria.



Unibertsitate Orientaziorako Azokak

EHUazoka 2026



DONOSTIA
Urtarrilak 31

VITORIA-GASTEIZ
Otsailak 7

BILBO
Otsailak 14





Erakundeetako kargudunak, sagardogileak eta elkarte gastronomikoetako ordezkariak, aurtengo txotx irekiera-ekitaldian. AIURRI

Txotx garaiaren irekiera-ekitaldia

Urnietako Udalak 2026ko txotx garaiari hasiera emateko ekitaldia antolatu zuen, aurreko ostiralean. Bertan izan ziren herriko hiru ekoizleak, hots, Eula, Altuna eta Oianume sagardotegietako ordezkariak

Erredakzioa URNIETA

Sagardozaleen elkarteak Donostian egin zuen ekitaldi nagusiaren erreplika izan zen Urnietakoa. Hainbat erakundeetako ordezkariak hurbildu ziren Eulara, sagardogintzari loturiko indarguneak nabarmentzeko. Tradizioa, ondarea, gastonomia, turismoa... helduleku asko ditu sagarretik abiatzen den sektoreak. Hala, aurkezpen-ekitaldia bideratu zuen **Jorge Segurado** alkateak naturarekin loturiko turismo arduratsuaren eta bertako produktuen sustapenaren alde egiten ari diren lana nabarmendu zuen: "Urnietan punta-puntako hiru sagardotegi ditugu. Hiruretan gozatu daiteke kalitate handiko sagardoaz zein jakiez eta ziur nago hona etortzen denarentzat ere esperientzia ahaztezina biziko duela. Gainera, interesa duenak, asteburua pasatzera eta herria

ezagutzeko eta bertako ingurune natural paregabeaz gozatzera hurbildu daiteke". **Azahara Dominguez** Lurralde Antolaketa-ko Diputatuak oinarritzailearen izena: "sagardoa gure bereizgarri den identitatearen erakusle da". Bide beretik jo zuen **Xabier Arruti** Lu-

rralde Oreka Berdeko diputatuak: "Hain geurea dugun produktua zaintzen lan egin behar dugu, gure lurra eta gure ekoizleak zainduz". Sagardogileen elkarteko **Unai Agirrek** eta **Olatz Mitxelena** ere aurtengo uztaz hitz egin zuten.



Joxemari Bengoetxea eta Xabier Sardon (Eteneta), Mikel Etxeberría (Santa Krutz), Iñaki Muro (Batzokia) eta Jeronimo Elozei (Peña Gorostidi), Iguaranekin batera. AIURRI

Urnietako ekoizleen ikuspegia



Aitor Iguaran, Eula sagardotegiko arduraduna. AIURRI

Eula "Kantitatez, iazkoarekin alderatuta, urte ona izan da aurtengoa. Kalitatearekin oso gustura nago. Gorputza eta kolore politakoa da eta usain garbikoa. Txotx irekierako ekitaldia Urnietan egiten dena zabaltzeko baliagarria da".



Xabier Altuna, Altuna sagardotegiko arduraduna. AIURRI

Altuna "Euskal Sagardoaren ekoizpena % 40 handitu dugu aurtengoa eta intentzioa bide horri eustea da. Gure sagarra erabili nahi dugu, ahalik eta kopuru handiengan. Sagardo fina dator aurtengoa eta gustura gaude egindakoarekin".



Patxi Iribar, Oianume sagardotegiko arduraduna. AIURRI

Oianume "Ona dator aurtengoa, beste urteetan baino gogorragoa, kolorez horiagoa eta lodiagoa. Zaporez, oso ona. Larunbat eguerditan beteta daukagu sagardotegia baina hortik aurrera lasai asko hurbildu daitezke Oianumera".



Sagardozaleen ospakizuna, Mizpiradin

"Hau da Andoaingo sagardo berria!" esanez hasiera eman zion Amaia Zubeldiak txotx garai berriari. Kopa altxa, bertan zirenei eskaini eta dastatzeari ekin zion segidan. Mizpiradi herriko sagardozaleekin bete zen, ospakizun giroan igaro zena



Txotx-irekiera ekitaldia Mizpiradin egin dute aurten. Datorrenean, Gaztañagan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Bertan ekoiztutako uztaren lehen dastatzaileak herrikideak izan ziren. Punttukak eta auzoetako jai batzordeak, Udalarekin elkarlanean, txotx garaia irekiera emateko aurkezpen herrikoia antolatu zuten. Andoaingo sagardozale eta bertsolari ugari hurbildu zen ostiralean Mizpiradira eta gaualdia ospakizunaren parekoa izan zela esan daiteke. Bertsoek girotu zuten afaria, lehen-lehenik, eta ondoren musikak.



Aurtengo sagardoa dastatu zuten Mizpiradin. AIURRI

Amaia Zubeldia, aurtengo protagonista

Ekitaldia antolatzen hasi denetik herritarrak dira protagonista. Iaz, esaterako, Ion Beloki izan zen protagonista. Aurten, berriz, Amaia Zubeldia. Sagardozaleen elkartearen ari da lanean eta, beraz, ondotox ezagutzen du sagardogileen sektorea. Hari eta Sagardozaleen Elkarteari egindako aitortza izan zen sagardotegien urteari hasiera emateko aukera. Andoaindarrak adierazi zuen "ohorea" izan zela antolatzaileek emandako aukera.



Aidüru musika taldeekin kideekin luzatu zen ospakizuna. AIURRI

Amaia Zubeldia, protagonista



Amaia Zubeldiak dastatu zuen, lehenik, urte berriko uzta. AIURRI

Nerea Ibarzabal

Beraz hauxe da gure aurtengoa zaporetsu ta argitsu. Urduri zeunden Amaia baina ondo esaten badakizu. Sagardogile artean horren murgilduta baitzabiltz zu ta ohore hau irekieran hain ederki doakizu. Zure herriari emandakoa herriak itzultzen dizu.

Xabat Illarregi

Hemen uztartu nahiko balira sagardoa ta herria. Lokaztu behar dira eskuak makurtu behar gerria. Hau da emaitza atera dena ezin hobe igerria. Beraz gozatu dezazuela gure sagardo berria eta bakoitzak har diezaiola orain nahi duen neurria.



Nerea Ibarzabal eta Xabat Illarregi bikain aritu ziren bertsotan. AIURRI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aiurri.eus webgunearen trafikoaren jarraipen txostenari erreparatuta –2025eko urtarri-laren 1etik abenduaren 31ra artekoa–, edukien kontsumoa nabarmen handitu da. 2024tik 2025era, 100.000 orrialde gehiagotan egin dute klik erabiltzaileek. Egunean, batez beste, 4.107 orrialde. Google Analytics neurgailua oinarri hartuta, Behategiak egindako zenbaketa da hori. Eta gehienak, ia %80, eskuko telefonoetatik egin dituzte herritarrek.

Eduki ugari, askotarikoak, sortu zituen iaz erredakzio-taldeak: 1.200 artikulua, 873 bideo, 701 argazki-bilduma... 2.774 dira sorturiko albisteak hiru atal horiek soilik aintzat hartuta, 7,6 dira eguneko. Eta horri gehitu behar zaizkio fotonotiziak, agendako hitzorduak, zorion-agurrak... Hartzailegoak non aukeratu izan duela, finean. Klik eta klik eginez osatuz joan da urte osoko audientzia.

Bi urtez joera egonkorra izatetik, jauzi handi samarra eman da 2025ean. Orotara, ikusitako orrien portzentajea % 7,5 hazi da. Klikatutako orrialdeak, urteka:

- 2023 1.414.228.
- 2024 1.395.016.
- 2025 1.499.156.

Igoera hori egunez eguneko kopuruan hobeto antzematen da. Klikatutako orrialdeak, eguneko:

- 2023 3.874.
- 2024 3.821.
- 2025 4.107.

Hala, datu hotzei erreparatuta, arreta gehiago bereganatu du Aiurri.eus webguneak eta portaera horren adierazleak horrela laburbildu daitezke: audientzia maizago sartzen da, eta egiten duen aldiro orrialde gehiago ikusten ditu. Hots, urtetik urtera arretagune gehiago topatzen duela Aiurriko edizio digitalean: lehen orrialdeko albisteez gain, argazki-galeriak, Komunitatea atala, Heriotz-oharrak, Santakruzak, Sanmielak eta jaiekin zerikusia duten gainerako kanal bereziak...

Urte osoan joera egonkorra du, lantzean behineko gorabeherekin. Izan ere, tarteka, zabalduko eduki jakinekin ohiko mugak hautsi eta audientzia biderkatzen delako. Atzera begira jarrita, 2025ean, igoera pikoak izan ziren honako albiste

Aiurri.eus-en igoera nabarmena 2025ean

Azken urteotako joera egonkorra hautsi eta ikustaldien kopurua % 7,5 igo da 2025ean. Klik eta klik egitearen poderioz, Aiurri informazioaren atea da irakurleentzat. Eta bertara itzultzeko joera errepikakorra dute



Bisitaldi gehienak, ia %80, eskuko telefonoetatik egin dituzte herritarrek. AIURRI

hauen ondorioz: Txanpi musikariaren heriotza, 1975eko kintoen argazki-albistea, Arantza Irigoras zendu zenekoa, Goiburutik Unanibirako bidean trabatuta geratu zen ibilgailuarena, Juantxo Lopez de Munainen heriotza, Andoaingo irudiak jasotzen dituen filmazio zaharrena, sutea eta erreskatea Aita Larramendi 26 kanean, Urnieta-ko txosnen auzia, Jose Manuel Erkiziaren heriotza, Andoaingo eta Urnieta Inauterien albistea...

Ez ohiko igoera horiek alde batera utzita, bisitarien kopurua egonkorra izateko gakoa hedabidearen identitatean datza: tokiko informazioa da motor nagusia. Eta, zorionez, garapen positiboarekin: erabiltzaile fidelen jardura handitu egin da eta, gainera, eduki gehiago kontsumitu dituzte. Datu kuantitatiboek portaera erakusten dute; sarbide-moduek, berriz, markaren sendotasuna. Azter dezagun hori, segidan.

Aiurri.eus, marka sendoa

Aiurrira sartzeko sarbide nagusia Aiurri.eus klikatzea da, alde

handiz gainera. Horrek esan nahi du jendarteak atari digitalean sartzeko URL zuzena idazten duela, edo nabigatzaileetan gustuko orrialde-markatzailean ezarrita duela, edo bilatzailean “Aiurri” jartzen duela. Intentzio argia duen audientzia da, propio baitoa Aiurri.eus webgunera, beren herrian eta inguru hurbilean zer gertatu den jakin asmoz. Aiurri.eus eta gero Andoain, Urnieta, Amasa-Villabona, Asteasu, Zizurkil... herri-orriak funtsezkoak dira Aiurrira datorren trafiko digitala aztertzeke garaian.

Erabiltzaile fidelen pisua argia da, oso leiala eta esperientzia errepikatzeke joera duena. Profila modu argigarrian deskriba daiteke, kolokialki: Aiurrikoa ez da “albiste batek harrapatu nau Googlen” profila; baizik eta “badakit nora joan informazio bila” pentsamendua buruan duena. Komunikazio-ikuspegitik balio handikoa da hori: audientzia Aiurrira sartzen baita, eta ez du ausaz Aiurrirekin topo egiten. Erreferentziatzeko marka lokalaren ezaugarriak betetzen ditu, beraz, Aiurri hedabidearen webguneak.

Ondorioa honako hau da: Beterri-Aiztondo eta Beterri-Buruntzako irakurleentzat informazioaren atea da Aiurri. Eta bertara sartzeko joera errepikakorra dute, gainera. Gehiengoarentzat ez da ustekabeko aurkikuntza, kontsultatu beharreko hedabidea baizik. Azalpen grafiko batekin hobeto uler daiteke: “Gaur zer gertatu da nire herrian? Begiratu dut Aiurrin”. Horixe litzateke, nolabait, hartzailearen pentsamendua.

Interneten edukiak sortzen dituzten gainerako hedabideen aurrean posizio indartsua ematen dio horrek Aiurriri: webgune erabiltzaileek bere burua bertan ikusten baitute, ziurrenik, beste hedabideetan ezin dutelako hain erraz eskuratu interesekoa dutena. Jendea propio sartzen da gure webgunera eta hori marka indartsuaren seinale garbia da. Milioi eta erdi orrialde bistaratu dituen har-

**ANDOAINGO
ETA URNIETAKO
IRAKURLEENTZAT
INFORMAZIOAREN
ATEA DA AIURRI**

**INTENTZIO ARGIA
DUEN AUDIENTZIA DA,
PROPIO EGITEN BAITU
KLIK AIURRI.EUS
WEBGUNEAN**

Aiurrik ez du edukia soilik argitaratzen; komunitatea elikatzen du

Edukiak etengabe berritzen dira formatuan eta ikuspegian. Hainbat hobekuntza eta eraldaketa egin ditu Aiurrik, TOKIKOMekin lankidetzan, azken hilabeteotan:

- **Argazki-galerien gorakada.** Kopurua urtez urte handitzen da. Kasu horietan erabiltzaileak ez duelako informazioa soilik kontsumitzen; bere burua bilatzen du irudien artean.
- **Kirol klubak Komunitatea atalean.** Klub bakoitza, hein batean, komunitate bat da. Emaitzak, sailkapenak eta ordutegiak argitara ematean erabilgarritasun handiko informazioa zabaltzen ari gara. Eta denboraldi osoan argitaratutako albisteek testuingurua ematen diote astez asteko martxari.
- **Heriotz-oharrak, "In Memoriam" atala.** Informazioa ematen digu eskelak eta Aiurri.eus webgunean areagotuz doaz, urte urte. Eta "In Memoriam"



Hainbat hizkuntzarara itzultzen da informazioa, automatikoki. AIURRI

atalak memoriara itsasten gaitu, gure hurbileko jendartera eta bizi-esperientzia amankomunera.

- **Aiurri.eus-eko artikuluak entzuteko aukera.** Batez ere baliagarria da beste zereginetan jarraitu eta irakurtzeko denborarik ez dutenentzat, mugitzen doazenentzat (oinezkoak, gidariak, kirolariak) eta ikusmen-arazoak dituztenentzat. Garapen hori ez da gehigarri tekniko hutsa; inklusioa da.
- **Izenburuak eta sarrera automatikoki itzultzen dira** hainbat hizkuntzatar. Euskara ikasten ari direnentzat, adibidez, edukia ulertzeko ate bat da.

tzailegoari Aiurri fidagarria, gertukoa eta behin eta berriro kontsultatzeko modukoa iruditu zaio. Eta hori guztia, euskarazko hedabide baten eskutik.

Kontaera berrien aldeko urratsa
Marka sendo batek badu arrisku bat: audientzia berriak atarian geratzea. Bide horri aurre egiteko, Aiurrik apustua egin du albisteak segundo gutxitan laburbiltzen dituzten bideo bertikaletan. TikTok, Instagram eta gisa bereko plataformatan zabaltzen diren eduki horiek sarrera-puntu berriak dira, eta webguneko "Azkar batean" atal berrian ere txertatu dira. Horren bidez, Aiurri ez da soilik kontsultatzeko gune bat, baizik eta erabiltzailearengana heltzen den

FIDAGARRIA, GERTUKOA ETA BEHIN ETA BERRIRO KLIK EGITEKO MODUKOA ZAIO HARTZAILEARI

marka ere bada, bere izaera informatiboa galdu gabe.

Buletinak, lasterbidea webgunera
Ohiturazko bisitekiko mende-kotasunari aurre egiteko, erabiltzailearen eguneroko kanaletan txertatu du informazioa Aiurrik. Astelehenetik ostirale-ra, Telegramen eta WhatsAppen hiru buletin informatibo zabaltzen ditu: Andoaingoa, Urnietakoa eta Aiztondokoa. Horren bidez, webgunera sartzea ohitura bat izateaz gain, Aiurriren informazioa erabiltzailearengana heltzen da modu aktiboan, udalerrriko egokituta eta erritmo finkoarekin. Buletinek webguneko ohitura osatzen dute, ez ordezkutzen.

KANALAK UGARITU, FORMATUAK DIBERTSIFIKATU ETA KOMUNITATEAK SENDOTU DIRA

Erronka, gerora begira
Bisitaldien gorakada da, akaso, azkar batean urte osoko jarduna ontzat edo txartzat baloratze aldagai. Horretara mugatzea, ordea, sinplea litzateke. Eta esango genuke Aiurriren erronka nagusia ez dela presentzia handitzea, baizik eta nora bidea argi mantentzea: kanalak ugaritu, formatuak dibertsifikatu eta komunitateak sendotu dira. Aiurrik badaki non duen indarra, bereziki, tokiko komunitatean, ohiko kontsultan eta irakurleengan sortzen duen konfiantzan. Hortik aurrera, hazkundea ez litzateke kopurutan neurtu beharko soilik, baizik eta hedabidearekiko loturan, erabileran eta eguneroko erreferentzialtasunean.

WHATSAPP, TELEGRAM... ERABILTZAILEEN OHIKO KANALETAN TXERTATU DA AIURRI



META korporaziokoak dira Facebook, Instagram, WhatsApp eta hainbat.

Sare sozialak, arlo digitalaren bigarren aldaera

Azken hamabost urteotan sare sozialak jendartera zabaldu dira nabarmen. Twitter eta Facebook izan ziren, garai batean, arrakastatsuenak. Instagram iritsi zen gero eta, egun, Tiktok da hazkunde handiena bizitzen ari dena. Haietan guztietan, Aiurriko edukiak partekatzen dira.

Facebook sare ezagunean Aiurrik duen orrialdea erredakzio-taldeko kideek elikatzen dute. Egun, 4.500 jarraitzaile ditu eta goranzko joera izaten ari da. Garapen positibo hori deigarria da ez baita, dagoeneko, bogako sare soziala. Azken urteotan hazkunde handiena Instagram eta, bereziki, TikTok sare sozialetan ematen ari baita. Datu argigarria: Azken hilabetean 7 erabiltzaile berri batu dira Facebooken. Instagramen, aldiz, 83.

40-60 adin-tartekoak dira, nagusi, Facebook-en eta hartzailego horrek badu albisteak irakurtzeko joera. Aiurriren analitikari erreparatuta, esaterako, sare sozialetatik webgunera iristen diren 10etik 8 Facebookeko erabiltzaileak dira. Garrantzi handikoak dira, bestalde, komunitateen arabera antolatutako orrialdeak. Udalerriri guztietan daude antzeko taldeak eta joera beretsua izaten da horietan guztietan: albisteak partekatu eta haren inguruan iritzia eman eta eztabaidatzen dute. "Andoaindarras y punto" eta antzeko orrialdeetan hizpide izaten da, maiz, Aiurrik sorturiko edukia. Aztergai izan behar lukeen fenomeno gertatzen ari da, gainera, orrialde horietan. Erabiltzaile ugari erdara darabilten arren, euskaraz sortutako edukiak hizpide izaten dituzte. Esan daiteke, beraz, euskaraz irakurtzeko joera ez duenak inoiz baino gehiago irakurri, ikusi eta entzuten dituela euskaraz egindako albisteak. Tokikoak, bereziki.

Adin tarteari erreparatuta, gazteagoak dira **Instagram**eko jarraitzaileak. 5.714 jarraitzaile ditu Aiurriren profilak eta goranzko joera nabarmenagoa da. Azken hilabetean, zabaldutako edukiekin 367.797 bistaratze lortu dira. Irismen handia da hori, edukia jarraitzaileetatik harago zabaltzen ari zen seinale. Tokiko hedabide batentzat, datu indartsua da hori.

Sare sozial gehiago darabilzki Aiurrik. **Twitter edo X** duela hamalau urte ireki zuen erredakzio-taldeak eta, egun, 2.726 jarraitzaile ditu. Azken urtean hainbat jarraitzaile erabiltzeari utzi diote eta ez dira gutxi sare hori ez elikatzeke erabakita hartu duten tokiko eta nazio mailako hedabideak.

Berriagoa da **TikTok** eta Aiurri bertan ari da hainbat bideo zabaltzen. Kontaera beste modu batera egiteko aukera baliatuta, bideo bertikalak dira informazio zehatz eta neurtuarekin. Helburua argia da: Aiurriko hainbat albiste labor eta arin bistaratzea. Denbora tarte txikian 2.530 jarraitzaile batu dira. Bideo bertikal horiek, era berean, Azkar batean izeneko atalean jasota daude Aiurri.eus webgunean.

Sare sozial erraldoi horietan badago ere, Tokikomekin lankidetzan, Mastodon sare sozial librean profila sortu zuen Aiurrik duela urtebete: <https://tkm.eus/@aiurri> txokoan Aiurri.eus gunean argitara ematen diren estekak aurki daitezke.



Ekitaldia antolatu zuten aurreko igandean, Andoaingo batzaraldi aretoan. AIURRI

35 herrialdeetako 246 bizilagun berri ditugu Andoainen

Andoaingo Udalak harrera-ekitaldia antolatu zuen igande arratsaldean

Xabier Lasa ANDOAIN

2025ean Andoainera bizitzera iritsi ziren bizilagunei harrera

ofiziala egin zien Andoaingo Udalak. Haietako hainbat hurbildu ziren pleno aretora.

Datuei erreparatuta, 35 herrialdeetatik 246 pertsonen eman zuten izena herriko erroldan. Udal korporazio guztiaren izenean hartu zuen hitza Andoni Alvarez alkateak, eta bertaratu zirenei poza adierazi zien "jatorri desberdinetako familiek eta pertsonen gure herria aukeratu dutelako beren etorkizuna erakitzeke".

Bizilagun berriak, mundu osokoak

Jarraian, herriko erroldan izena eman duten pertsonen jatorria.

- Maroko 71.
- Kolonbia 37.
- Nikaragua 28.
- Honduras 14.
- Aljeria 14.
- Peru 9.
- Ekuador 7.
- Errumania 5.
- Txina 4.
- Kuba 4.
- Venezuela 4.
- Portugal 3.
- Guatemala 3.
- Senegal 3.
- Pakistan 3.
- Argentina 2.
- Tunisia 2.
- Siria 2.
- Nigeria 2.
- Mexiko 1.
- Boli Kosta 1.
- Polonia 1.
- Italia 1.
- Ghana 1.
- Harreman diplomatikorik gabeko herrialdea 1.
- Britania Handia 1.

- Georgia 1.
- Mendebaldeko Sahara 1.
- Brasil 1.
- Egipto 1.
- Ginea 1.
- Bolivia 1.
- Txekiako Errepublika 1.
- Filipinak 1.
- Frantzia 1.

Hamza Mesli (Aljeria), Ibtissam El Karimi eta Omar Touil (Maroko), Victor Cuenca eta Nelly Caiza (Ekuador), Andres Rubiano (Kolonbia) eta Aitor Gurrutxagak (Galizia) ziren Andoaingo ekitaldira hurbildu ziren herrikide berriak. Oro har, lasaia eta tamainako udalerria iruditzen zaie Andoain. Eta, bertan jaiotakoei bezalaxe, inguruko naturguneak politik iruditzen zaizkie. Bereziki, Leitzaran bailara.

Denek ere, Andoainera iritsi direnetik harrera ona jaso dutela azpimarratu zuten.

Pantaila akustikoak jartzeko lanei ekin dio ADIFek

Zumarraga eta Irun arteko linea konbentzionaleko puntuetan 34 jarriko dituztela iragarri du konpainiak

Erredazkioa ANDOAIN

Andoainen ekin diote zarata saihesteko pantailak jartzeko lanei. ADIFek bere garaian 34 pantaila akustiko jarriko zituela iragarri zuen, zehazki, Zumarraga eta Irun arteko linea kon-

bentzionaleko puntuetan. Jar-duera hori 50,7 kilometroko distantzira zabalduko da. Linea horretan Gipuzkoako aldirietako eta distantzia ertain eta luze zirkulazioak hartzen dira, konpainiak emandako datuen

arabera. Iaz iragarri zuten Adifek 28,7 milioi euro inbertituko zituela helburu horretarako. Zehazki, Gipuzkoan, Bizkaian, Palentzian, Zaragozan eta Santanderren. Jarduketa horren bidez, lursailak prestatu behar dira, ingurumen-neurriak bere baitan hartuz. Horretarako, drainatzeak egokitu behar dira, eta kaltetutako zerbitzuak bir-jarri, pantailaren instalazioaz gain. Pantailen hedapenarekin, Zarataren Legean aurreikusitakoa betetzen hasiko dira.



Trena, Donostiaranzko norabidean, Kaletxikitik aurrera. AIURRI

MUGI sisteman sartzeko bidean da Andoaingo Hiribusa

Baikor agertu dira Dominguez Foru Diputatua eta Alvarez Andoaingo alkatea

Erredazkioa ANDOAIN

Abenduan Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen, zeinaren bidez, Hiribusa hartzeko MUGI txartela erabili ahal izango den.

Azahara Dominguez Foru Diputatuak ontzat hartu zuen hitzarmena: "MUGI arrakastatsua da, eta, beraz, lanean jarraitu behar dugu sarea zabaltzeko, jende gehiagorengana iristeko, eta modernizatzeko".

Andoni Alvarez Andoaingo alkatearen ustez hitzarmena urrats berria da udal zerbitzuarentzat: "Urteak dira Andoainek udalerrri barruko bus zerbitzua duela eta orain beste urrats bat eman da Gipuzkoako Garraio Agintaritzan sartuta. Hemendik aurrera, Andoaingo herritarrek, txartel bakarrarekin, Andoaingo Hiribusa, Lurraldebusen autobusak eta gainerako Garraio publikoak erabili ahal izango ditu. Herritarrentzako onura handia da hori".



andoa**INDARRA**
euskaraz

Ur zikin gutxiago, Oria ibaira

Leizotz eta Bazkardo aldeko etxebizitzetako eta industriguneetako ur zikinak Oria ibaira isuri dira urte luzez. Adunako araztegia eta harainoko lotunea 2013an eraiki bazuten ere, konponbidea urte luzeko atzerapenarekin iritsi da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ziako erreka Errekabeltz izenarekin ere ezaguna da Andoainen eta hura berbideratzeko iragarpenak egin izan dira iraganean. Hala, urte luzeren ostean, gauzatzea lortu da. Ama Kandidaren eraberritzeak eragin zuzena izan du ur zikinak bideratzeko orduan. Izan ere, egungo legedia eskutian, auzune berria eraikitzeke baldintzen artean dago ur-beltzen isurketarik ez izatea. Ziako erreka toa berbideratzeko arrazoiak, 2026an, uholdeetatik babestea eta saneamendua hobetzea dira. Leizotz eta Bazkardo aldean, "errekastoaren bidez, Oria ibaira egiten zen isurketa nagusietako bat ezabatzea" lortu dela adierazi du Eusko Jaurlaritzako URA agentziak prentsa ohar bidez. Aurrerantzean, ur zikin horiek dagokion araztegian amaituko dute: "egindako jarduketari esker, 5.200 pertsonako popu-

lazio baliokideko hondakin-urak Oria Erdiko hodi-biltzailera bideratzen dira, hots, Gipuzkoako Urak partzuergoak kudeatzen duen Adunako araztegia".

Eusko Jaurlaritzaren eskumena

Lanak bideratzeko ardura. Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailera atxikitako URA agentziarena izan da. Zeregin horretan inguruko etxebizitza eta industria alorreko ur zikinak berbideratu dituzte. Lanen xehetagan gehiago eman dituzte. Obren trazadura Gudarien Hiribiden hasi -Super Amara supermerkatuaren inguruan- eta Ama Kandida etorbidearen erdi pareraino egin da, Orbelan enpresaren pareraino. Bertan egiten da Adunako araztegirako konexioa. Ibilbidean, kolektore nagusiko 1.960 metro berri eraiki dituzte, "eta bigarren maila-

ko 2.890 metro gehiago, ur beltzak eta euri-urak" bereizten dituztenak. Gauzak horrela, Erroitz, Plazaola eta Arantzibia aldeko goiko auzoetatik eta Aranaztegi eta Ziako industriguneetatik datozen isurketak Adunako araztegi bideratuko dira. Andoainen Oriara zuzenean egiten den isurketa bat gutxiago dugu, beraz. Egoerak sortuko duen onura zehaztu dute prentsa-oharrean: "saneamendu-jarduerak 8 milioi euroko inbertsioa izan du. Esku-hartze horrekin, urrats erabakigarria egin da Ziako errekaaren egoera ekologikoa hobetzeko. Obra martxan jarri arte, Oria ibaiaren arroan presio kutsatzailearen puntu nagusietako bat zen. Orain, presio hori murriztu da, eta hondakin-urek ingurune naturalera itzuli aurretik tratamendu egokia jasotzen dutela ziurtatu da".



Ama Kandida etorbidean barrena doa Ziako erreka toa. URAK

Eguzki talde ekologistaren aspaldiko eskaera izan da

Ziako errekaaren saneamendua behin eta berriro atzeratu dela salatu du, urte luzez, Eguzki talde ekologistak. Hemerrotekari erreparatuta, honakoa salatu zuen talde ekologistak duela hainbat urte: "2007an, Jaurlaritzak eta Aldundiak horrelako akordio bat sinatu zuten 2011ra bitarte hainbat saneamendu-proiektu aurrera eramateko. Proiektu haietako bat Andoingo Ziako erreka toa zen. Garai hartan, aurrekontua 3,8 milioi eurokoa zen eta Eusko Jaurlaritzak osorik finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Ez zuen agindutakoa bete". Ziako erreka ur zikinak Oriara zuzen-zuzenean

isurtzen jarraitu du harik eta Ama Kandida etorbidearen eraberritzea iritsi den arte. Egoeraren larritasuna datu bidez azaldu zuten orduko hartan: "Ez dira, ez, mendian sakabanatutako lauzpabost baserrietako ur zikinak. Ziako erreka Aranaztegi, Geltoki, Buruntza, Bazkardo, Kale Txiki, Extremadura, Gabriel Aresti, Gudarien Etorbidea eta Ama Kandida inguruko auzo zein industrialdeetako isuriak biltzen baititu". Adunako araztegia 2013an martxan jarri eta 13 urtera, beraz, Andoainen konpondu gabe zegoen saneamendu-arazoa bideratzen hasi dira.

Aiurri Eguzkiko kideekin harremanetan jarri da egunotan eta, 2026an, oraindik orain, "herrian geratzen diren isurketa guneeekin" amaitu behar dela azpimarratu dute: "nabarmenena Kale Nagusian dago, Alondegia zubiaren ondoan. Bestalde, estolderiak berri behar dira ur-beltzak eta euri urak bereizten joateko. Eta, azkenik, lehen hain ohikoak ez ziren kutsagaiak zabaltzen ari dira. Hala nola, mikroplastikoak, botikak...". Araztutako urak berrerabiltzearen alde daude, naturatik egiten den ur garbiaren erauzketa ahalik eta txikiena izan dadin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Iragarri dute Andoaingo II. Duatloia

DUATLOIA Antolatzaileek federatu eta open mailakoa izango dela aurreratu dute. Beraz, partaidetza interesa duen edonorentzat zabalik dago. Datorren martxoaren 14an izango da, larunbatarekin

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Martxoaren 14an antolatuko dute Andoaingo Duatloia bigarren edizioa, oraingoan ere Zumeatarra Triatloi Taldeak antolatuta. Federatu eta open mailako denez, partaidetza interesa duen edonorentzat zabalik dago. Antolatzaileek aurreko astean aurreratu zuten, arratsaldeko 16:00tan hasiko da Sprint formatuko proba. Hots, partaideek 5 kilometro korrika, 20 bizikletan eta beste 2,5 gehiago egingo dituzte korrika. Ibilbidean berrikuntzak egingo dituztela iragarri dute, "ibilbidea ikusgarria izan asmoz". Izen-ematea laster zabalduko dute.

Proba antolatzen laguntzeko boluntarioei deialdia

Bestalde, proba berme guztien egin ahal izateko, egunean bertan laguntza emango duten boluntario bila ari dira. Zinez eskertuko lukete herrikideen laguntza. Horretarako prest daudenek e-posta idatzi behar dute: zumeatarrakiroltaldea@gmail.com.

Iaz, Zumeatarra Triatloi Taldeak sortu zen ideia kirol jardueren horretan proba asko desagertu eta berriak aurkezteko zirela ikusita.



Iaz egin zuten lehen edizioa. AIURRI

Andoainen antolatzeko pausua eman zuten eta, nagusiki, bi irizpide jarraitu nahi izan zituzten: lehena, ikusleak bertatik bertara izan asmoz, probaren zati handia herri barruan egitea; bigarrena, partaideen gustuko ibilbide erakargarria egitea. Bi irizpide horiek oinarri aritu

ziren lanean. Asmoak onak ziren eta, hein handian, bete ziren. Baina bada kontrolaezina den aldagaia: eguraldia. Eta, zoritarrez, eguraldi txarra izan zen proba egunean eta horrek ibilbidea zaildu eta protagonisten eginahala zaildu zuen. Ea 2026an bestelakoa den eguraldia.



Igerilariak Andoaingo saioan ateratako argazkian. BURUNTZALDEA IKT

Neguko Ligari amaiera eman zioten Andoaingo Allurralden

IGERIKETA Neguko Ligaren amaiera eta Hernani Saria, 2026a hasterekin batera

Erredakzioa ANDOAIN

Buruntzaldea IKT igeriketa taldea ekimen betean da. Taldeko helduenek, esaterako, dagoeneko amaiera eman diote Neguko Ligari, urtarrilean Andoainen antolatu zuten jardunaldiarekin. Klubeko bederatzi taldekide bildu ziren denera. Honako hauek: Ane Meyer, Nille Becerra, Nora Miguelez, Amaia Iparra-girre, Itxaso Iparra-girre, June Apeztegia, Izaro Bautista, Lier Garmendia eta Aiala Erro. Guztien parte-hartzea amaituta, 8 marka pertsonal berri lortu zituzten. Seinale ona da hori klubarentzat: "marka pertsonalekin batera, Gipuzkoa mailako txapelketetan lehiatzeko aukerak handitzen doazela ere ikusten

ari gara; alde horretatik, 50 tximeleta eta 200 libreko proban egindako denborekin Lier Garmendiak Gipuzkoako udako txapelketarako gutxienekoak lortu zituen. Igerilari guztiak oso lan txukuna egiten ari direla ikusi dugu eta horren erakusle da askok hobetu dutela haien markaren bat; eta ez bada hala izan, haien denbora onenetatik oso gertu aritu dira denak. Zorionak denoi alde horretatik eta segi lanean!".

Urrutira joan gabe, aurreko asteburuan Hernaniko Sarian parte hartu zuen hainbatek. Igerilari bakoitzak 100 metroetako estilo bat egiteaz gain, guztiek lau estiloetako 200 metroko proban lehiatu behar zuten.

Jardunaldi berezia

FUTBOLA Futbol inklusiboaren topaketa egin zuten Andoaingo Ubitarten, aurreko asteburuan. Gipuzkoako futbol federazioak antolatu zuen jardunaldia eta Euskalduna klubaren partaidetza esanguratsua izan zen: Jimmy Brosa lehendakaria, zuzendaritza-taldeko kide, hainbat entrenatzaile eta jokalaririk hurbildu ziren jardunaldi berezira.



ZATARAIN



ZATARAIN

Kadete mailako bi taldeak igoerako ligaxkan izango dira

ESKUBALOIA Leizaran La Salle Berrozpek lehen postuan amaitu du eta Urnieta Lanchas Bus taldeak, hirugarren

Erredakzioa URNIETA
Garaipen zaporeko berdinketak igoera-fasea jokatzeko sailkatu ditu Urnieta Lanchas Bus taldeko kadeteak. Sailkapeneko hirugarren postuan amaitu dute Gipuzkoako txapelketa, Leizaran La Salle-Berrozperen aurka berdindu ostean (24-24). Emozioz beteriko derbia izan zen, azken unerarte zirrargarria. Finean, bi taldeek partida bikaina jokatu zuten.

Defentsak erasoei gailendu zitzaizkien Urnietako kiroldegian jokaturako partidaren. Partida berdindua izan zen hasieratik, alternatiba arinekin markagailuan, urnietarrak atsedenaldira abantailarekin helduz (10-9). Bigarren zatia hasieran urnietarrak, defentsan oso biziak, zenbait baloi berreskuratu eta 2-3 goleko errenta lortu zuten, eta abantaila horri eutsiko zioten bigarren zatiko zenbait minu-



Urnieta Lanchas Bus, aurreko asteburuan. AIURRI

tan. Andoaindarrek ez zuten amore eman eta markagailuari buelta ematea lortu zuten, baina UKEkoena izan zen azken gola.

Urnietarren eta andoaindarren denboraldi bikaina izaten ari da. Leizaran, lidertzan. Eta, Urnieta, hirugarren.



Lokatzen artean, Asteasu aldean

TXIRRINDULARITZA Benjamin, alebin eta infantil mailako lasterketa antolatuta zuten Asteasu, aurreko asteburuan. Gipuzkoa osoko partaideek ikuskizun polita eskaini zuten txirrindulari gazteek. Trebatzeko saio aparta izan zen, euriari eta ibilbide lokatuari aurre egin behar izan zioten.

Denboraldiko lehen garaipena

ESKUBALOIA Leizaran Lanbroa Tabernako jokalariek sekulako poza hartu zuten aurreko asteburuan, Euskadiko Senior Ligako partidaren amaieran: Andoainen jokatu zuten urteko lehen partidaren eta lehen itzuliko azken jardunaldian iritsi zen lehen garaipena. Zuazo taldea garaitu zuten (28-26) partida estuan baina, oraingoan, puntuak etxean geratu ziren. Datorrenean bigarren itzuliko lehen jardunaldia izango da eta berriro ere Allurralden jokatu dute. Behin garaipenari zaporea hartuta, errepikatze gogoz dira andoaindarrek. Larunbat arratsaldean, 16:30ean, Kukullagaren bisitaldia jasoko dute. Lehen itzulian bizkaitarrak izan ziren garaile (29-21).



LEIZARAN

URTARRILAK 24

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

kutxabank

MASTERS

TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

GOIKOETXEA V · ZUBIRI VS

JABALERA · AIESTARAN VI

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)

AZPIROZ VS EZKURRA II

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

ALDABE · BARRENETXEA IV VS

ANSA II · LARRAÑAGA

Aurten ez da Kaldereroen irteerarik izango Andoainen

Gora Kaletxiki Txarangak jakinarazi du, ohar bidez. Ondarreta Herri Eskolako irteerari eutsiko diote soilik



Kalderero-doinuak zabaldu ohi ditu txarangak Andoaingo kaleetan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Gora Kaletxiki txarangako ordezkariak gogoratu dute urte askotan aritu direla Kaldereroen jaia antolatzen: “Txarangak maite du Kalderero festa, eta antolatzeke prestutasuna erakutsi du beti. Hala ere, herriaren aldetik ez dugu espero genuen erantzunik jaso”. Nolanahi ere, urte horietan ekitaldian parte hartu duten herritarri esker ona adierazi diete.

Bestalde, Andoaingo Udalak atsekabea agertu du Kaldereroen ospakizuna bertan behera geratu delako. Marta Lasa Kultura zinegotziak adierazi du beti dela tristea herriko kultur dinamika tradizio handiko hitzordu bat galtzea. Aldi berean, etorkizunean, kaldereroek Andoaingo kaleetan biziberriturik azalduko diren itxaropena azaldu du.

Andoainen sustraitutako usadioa

Andoainen, Kaldereroen Konpartsa 1987an jarri zen abian, Ontza elkartearen eskutik. Hastapeneko antolatzaileen artean aipatzekoa da 2023ko otsailean hil zen Patxi Mendikute kale-txikitarra. Erreginaren rola bete zuen urtetan, berezkoa zuen umore eta graziarekin.

Aiurriekin 2011an egin zuen elkarrizketan adierazi zituen nolakoak izan ziren ospakizunaren hasierak: “Felix Martinez de Lezea ttuntuneroari bururatu zitzaion Kaldereroak Andoainera ekartzearena, 1987an; berak tentatu ninduen erreginaren papera egin nezan. Donostian umetan asko ikusia nituen kaldereroak, eta baiezkua eman nion. 130 kilo pisatzen nuen eta gogo onez atera nintzen, hamaika urtez segidan”.

Famatuak ziren udaletxeko balkoitik egiten zituen hitzar-tzeak, herriko gorabeherak ukitu kritikoez eta umorez errepa-satuz beti. “Etxean idatzi eta bezperan Felixi (Martinez de Lezea) erakusten nizkion; barrez lehertzen hasten zen!”. Kritika umorez zabaltzea zen Patxiren jarduna. “Gidoian Andoainen eta Andoandik kanpo urte osoan gertatu ziren xelebrekeriak aipatzen ziren, modu ironikoan. Egia esan, askorako ematen zuten herriko hirigintza arloan gertatzen ziren zenbait kontu...”.

Erregina eta laguntzailearen rolak, Imanol Etxeberriak eta Joseba Arabaolazak bete zuten ondorengo urtetan, besteak beste.

Gora Kaletxiki txarangak bere gain hartu zuen antolakuntza azken urtetan esan bezala, eta Ion Beloki, Aritz Eskudero, Unai Ormaetxea, Luziano Uribesalgo eta Joxean Well aritu izan ziren aktore lanetan. Musika, berriz, Joxe Mari Oiartzabalen eta txarangako musikarien ardurapean egon da.

Kalderero txikien irteerari eutsiko diote soilik

Festa, hori bai, ez da erabat desagertuko: kaldereroekiko atxikimendu hori beste ekitaldi batekin erakusten jarraituko dute Gora Kaletxikikoek. Hain zuzen, baieztatu dutenez, Ondarreta Herri Eskolako Kalderero Txikien konpartsarekin bat egingo dute, otsailaren 6an.

Konpartsa datorren otsailaren 6an abiatuko da, ostiralarekin, arratsaldeko 15:00etan hasita, eskolatik bertatik. Kale Nagusian eta Zumea kalean barrena ibiliko dira, mailuekin zartaginak jo eta jo, herri eskolako irakasle, haur eta gurasoak.



2022an ere Leizotz aldean ibili ziren. AIURRI

Puska-biltzaileak hilaren 31n ibiliko dira Leizotz aldean

Irunberri elkartetik abiatu eta Gudarien etorbidean barrena iritsiko dira Leizotz aldera

Xabier Lasa ANDOAIN

Leizotz baserri-auzoan ospatuko da axerrien Puska Biltzearen ohitura, urtarilaren 31n, larunbatarekin. Antolatzaileek herriko dantza zaleei eta festazaleei gonbitea luzatu diete ekitaldian parte har dezaten, Andoaingo inauteri jaien lehen hitzordua izango baita.

Baserriz baserri, euskal kulturara itsatsi-itsatsita dagoen Puska Biltzea egingo dute axerriek, Olagain elkarteko txistulariak bidelagun izanda. Baserri atarrietan, bertan bizi direnen aurrean ariko dira. *Aitarena, Zortzikoa, Orratzakoa, Korrika, Perra Jartzea, Borroka* eta *Dorrea*.. Axeri Dantza osatzen duten hainbat dantza edo joko biziberritzeaz gain, festa giroa eta umorea zabalduko dute.

Sustrai sendoko usadioa da axerrien puska biltzea. Aita Larramendik eta Iztuetak XVIII.

mendeko idatzietan eman zuten tradizio horren berri. Hainbat urtetan desagertuta egon ostean, Andoaingo axerriek 2013an berreskuratu zuten. Geroztik, Andoaingo lau baserri-auzoetan (Sorabilla, Leizotz, Buruntza eta Goiburu), txandaka, ospatzen dute.

Hitzordua goizeko 08:00tan

Axerriek, Irunberri elkartean, goizeko 08:00etan jarri dute hitzordua. Han, axeriez jantzi ostean, Gudarien Etorbidera abiatuko dira. Bertan diren Leizotz auzoko etxe eta baserrietan egingo dituzte lehenbiziko geldialdiak; behetik gorako norabideari helduko diote, era horretan. Herritarrentzat irekia da ekitaldia, eta izena emateko edo informazio gehiago edukitzeko, honako e-postara idatzi behar da: andoaingoaxeridantza@gmail.com.

Egape Dantza Taldea, nazioarteko dantza lehiaketan

Developpe izenekoa, Bilboko BBK aretoan izango dira asteburuan Euskal Dantza atalean lehiatzen

Erredazkia URNIETA

Developpe nazioarteko II. Dantza lehiaketa Bilbon izango da urtarilaren 22, 23, 24 eta 25ean, Bilbao BBK Aretoan, “Dantza, hizkuntza unibertsal eta bakar moduan” lelopean.

Urnietako Egape Dantza Taldeko zortzikote batek bertan parte hartuko du, Euskal Dantza atalean. Hainbat helburu ditu lehiaketak. Nagusiki, honakoak: dantza-eskolak, dantza-taldeak, pertsonak, bertakoak

nahiz atzerritarrak biltzea...; dantzak indar kulturala erakustea; dantzaren hurbiltasuna eta ezagutza sustatzea; eta, dantza-ikasleen eta profesionalen arteko topaketa ahalbidetzea eta sustatzea.

Euskal dantza atalean lehiatuko dira urnietarrak

Euskal autore garaikide zein klasikoaren musikak erabiltzea baloratuko dute eta piezaren iraupena gehienez ere bost minutukoa izango da.



Argazkiko hainbat dantzarik parte hartuko dute Bilbon. EGape DT

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Zain dugu Agate deuna!!

Urtero bezala, Ageda deun egunaren bezperako usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara otsailaren 4an, asteazkenarekin, arratsaldeko seietatik aurrera, Etxeberrieta plazatik abiatu eta Elizondo tabernaren aurrean azkeneko kantak urratuz amaitzeko.

Entseguak, datorren astean
Ahotsak prestatzeko helburuarekin eta kanta berriren bat ere ikasi behar baita, urtarrilaren 26an,

astelehenarekin, eta urtarrilaren 27an, asteartearekin, entseguak egingo ditugu Ambrosia Olabide egoitzako sarrera nagusian, ohi dugun bezala, iluntzeko 20:00etan hasita. Ateri egon edo kazkabarra egin, Agate deunaren erronda kalean izango da berriro aurten, hutsik egin gabe. Errondaren ibilbidea iazkoa izango den arren, aurrerago horri buruzko xehetasunak emango ditu Manuel Larramendi Kultur Bazkunak.



Iazko kantu-erronda. AIURRI



Saioak Lekaion, Liburutegian eta Xoxokan izango dira hurrengo asteetan. UDALA

Irakurzaletasuna sustatzeko ekimen gehiago, Urnietan

0-6 urte arteko saioak iragarri dituzte datozen asteetarako, bi taldetan banatuta

Erredakzioa ANDOAIN

Liburua ardatz izanda, literatura, musika, artea eta naturarekiko interesa pizteko baliagarriak izan daitezkeen saio berriak antolatu ditu Urnietako Udalak. Urrian abiatu zen zikloa eta erantzuna ona izan zenez, saio berriak antolatu dituzte.

0-3 urte artekoentzat, Lekaion

45 minutuko saioak izango dira, "Liburu baby kluba" izenburupean. Haurrek heldu baten laguntzarekin joan beharko dute saioetara. Datozen saioak asteazkenarekin antolatu dituzte:

- Otsailak 4, 17:00.
- Otsailak 25, 17:00.
- Martxoak 4, 17:00.
- Martxoak 18, 17:00.

4-6 urte artekoentzat, Liburutegian

"Liburu txiki kluba" izenburupean, bi saio izango dira herri-gunean. Biak ere asteazkenarekin:
• Urtarrilak 28, 17:00.
• Otsailak 18, 17:00.
Hirugarren eta azken saioa Xoxokako eskola zaharrean izango da, martxoan:
• Martxoak 13, ostirala. 17:30.

Antia lehiaketaren edizio berria

Aurten, lehiaketa bi mailatan izango da: haurrena eta gazteena

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako Udalak lehiaketaren 32. edizioa aurkeztu du. Haurren mailako lehiaketa 2014 eta 2016 urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago. Kultura-bonu bana jasoko dute onenek: 200 euroko, 150 euroko eta 120 euroko baliorekin, hurrenez hurren.

Gazteen mailakoan, berriz, 2010 eta 2013 urteen artean jaiotakoek parte har dezakete. Kasu horretan 500, 300 eta 150 euroko diru-sariak banatuko dituzte.

Bi kasuetan, lehiaketa herrikideei edo bertan ikasten ari direnei zuzenduta dago.

Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 20a izango da. Lehiaketa Urnietako Udalak antolatu du, "euskara, literatura, sormena eta idatzizko adierazpena bultzatzeko xedez".

Nor zen Antia?

On Manuel Antonio Antia XIX. mendean bizi izan zen euskal idazle eta erlijiosoa izan zen. Bere apaiz ibilbidean Urnietan erretore izan zen. Letrei dago-kionez, garai hartako Euskal-Erria eta Euskalzale aldizkarietan olerki, ipuin eta itzulpenak idatzi zituen.

Martxoak 8ko ekitaldiak iragartzeko lehiaketa, Andoainen

Gipuzkoan bizi eta 16 urtetik gora duten emakume guztiek parte har dezakete. Oinarriak:
• 65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabalerako kartela. Guztietan, ondoko testua azalduko da: "Martxoak 8-Emakumeen nazioarteko eguna. Andoain 2026".
• Koloretan egingo dira lanak.
• Lehiakide bakoitzak, gehienez ere, hiru aurkeztu ditzake.

- Lanak aurkezteko eguna: Bastero Kulturgunean, otsailaren 10ean, 10:30-13:30 eta 17:00-19:00 artean. Lan bakoitzarekin batera, gutun-azal itxi bat joango da. Barruan egilearen izena eta abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira. Gutun-azalaren kanpoaldean eta kartelaren atzealdean egilearen adina eta aurkeztutako lanaren izenburua.
- Saria: sari bakarra izango da, 500 eurokoa, Salkineko dendetan kontsumitzeko.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Aritz, zorionak!
Hilaren 21ean HAMALAU urte betetzen dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxeokokin.

Odola emateko hitzordua, Urnietan, ostiral honetan

Odol-emateko saioa izango da Urnietako Gaztelekuan, datorren urtarrilaren 23an. Odola eman nahi dutenek hurrengo telefono zenbakira deitu beharko dute hitzordua zehazteko: 943 00 78 85. Gaztelekuan arratsaldeko 16:30etik aurrera izango dira, iluntzeko 20:30ak arte. Urteko lehen saioa da.



Deialdi berria martxan da. AIURRI

Abian da Andoain Laburrean bideo lehiaketa

Andoaingo Udalak eta ESCIVI Andoaingo Bideo eta Zine Eskolak antolatu dute edizio berria, hamaikagarrena. Gaia librea den arren, aurten, lan guztietan, Lebiton Konpartsako erraldoiren bat azaldu beharko da. Lanek, gehienez ere, 10 minutuko iraupena izango dute eta bidaltzeko azken eguna maiatzaren 18a izango da.

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANTZERKIA

ANDOAIN Promesarik txikiena

"Zein da lagun bati egin diezaiokegun promesarik txikiena?".
19:30, Bastero.
Urtarrilak 23, ostirala.

URNIETA Scrooge eta mamuak

Khea Ziarter konpainiak panpinak erabili ditu sorkuntza honetan.
17:30, Sarobe.
Urtarrilak 25, igandea.

ENTSEGUAK

ANDOAIN Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an usadioa biziberrituko du Larramendi Bazkunak. Bi entsegu deitu dituzte, datorren asterako.
20:00, Ambrosia Olabide.
Urtarrilak 26 eta 27.

DOKUMENTALA

ANDOAIN "No other land"

Zisjordaniako komunitate palestinarren errealitatea kontatzen duen ikus-entzunezkoa. Andoingo BDZ taldeak antolatuta.
19:00, Bastero Kulturunea.
Urtarrilak 28, asteazkena.

KONTZERTUA

ANDOAIN Belharra

Kantu propioak eta Bob Dylanek idatzitako hainbat euskaratuta.
19:30, Bastero.
Urtarrilak 30, ostirala.



Liburu Baby Kluba egitasmoa hainbat udalerritan egiten ari dira. LIBURU BABY KLUBA

URNIETA Irakurzaletasuna sustatzeko saioak

Urrian abiatu zuten zikloari jarraipena emango dio Urnietako Udalak. Datorren astekoa 4-6 urte artekoek zuzenduta dago. Xehetasun gehiago 15. orrialdean.
Urtarrilak 28, asteazkena. 17:00. Lekaio.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Pailazoak

Porrotx, Marimototx, Pupu, Lore eta lagunak abentura berrian murgilduko dira. Oraingoan, izarrei begira.
11:30, Bastero.
Otsailak 1, igandea.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre

"Marraztu gabeko irudiak."
18:30, irekiera-ekitaldia Basteron.
Otsailak 5, osteguna.

INAUTERIAK

ANDOAIN Axerien Puska-biltzea

Leizotz aldean ibiliko dira aurtan.
Urtarrilak 31, larunbata.

ANDOAIN Laguntza-lerroa


Andoain.eus webgunean talde-jarduerak finantzatzeko xehetasunak.
Inauteriak Andoainen:
Otsailak 12-15.

URNIETA Inauterietako gaia

Telebista-saioak, aurtengo gaia.
Inauteriak Urnietan:
Otsailak 14, larunbata.



ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

Ollaskoerbi eta marmotaren sekretua

Larunbata, 24. 17:00.
Igandea, 25. 17:00.
Bi emanaldiak, euskaraz.

El medico 2

Larunbata, 24. 19:30.
Igandea, 25. 19:30.
Aste, 26. 17:00, 19:30.
La asistenta
Larunbata, 31. 19:30.
Igandea, 1. 19:30.
Aste, 2. 17:00, 19:30.




SINOPSISIA

El medico II

Zuzendaria: Philipp Stölzl. **Aktoreak:** Tom Payne, Aidan Gillen, Owen Teale, Liam Cunningham, Emily Cox... **Generoa:** Abenturak, drama. **Herrialdea:** Alemania. **Iraupena:** 142 minutu.

Medikuaren abentura berriak

Ispahan, 1034. Rob Cole eta bere familiak Madrazatik ihes egin eta mendebaldera jo behar dute medikuntzako ikasleekin batera. Londresera iristean, ohartzen dira musulmanek eta juduek debekatuta dutela hirira sartzea eta ezin dutela bertan mediku gisa jardun. Kikildu gabe, Colek eta bere pupiloek bat-bateko ospitalea ezarri zuten Londresko ateetan. Erregeak Cole deitzen dionean bere alaba gaixoari arreta eman diezaion, mediku lanetan dituen trebetasun apartek gorteko postu bat ziurtatzen diote. Botere-borroketan eta errege-etxeko azpijoko politikoetan murgiltzen den heinean, medikuak bere senaren arabera gidatu beharko du kolapsoaren ertzean dagoen Ingalaterran bizirauteko.



Deialdia egin du mugimendu feministak.

Martxoak 8: bilera irekia, hilaren 4an

Andoingo Mugimendu Feministak deituta, 18:30ean hasita, Arrate frontoiko bilera-gelan.

Sahara: elikagai-bilketa, Andoainen

Hurria-Sahara, urtero bezala, elikagaien bilketari ekin dio. Aste hauetan Andoingo ikas-tetxeetan egiten ari da bilketalana. Herritarrek, datozen egunotan, parte hartzeko aukera izango dute. Aukerak, zehazki, hiru dira: Aste osoan, Zumea plazako Eroski supermerkatuan; ostiralean eta larunbatean, Extremadura kaleko BMn; eta, datorren asteburuan, Super Amaran.

Aktoreak eta panpinak, igande arratsaldean, Saroben

Charles Dickensen "Christmas Carol" eleberriaren egokitapena da Khea Ziarter konpainiaren proposamena

Erredazkia ANDOAIN

Aktoreen, zinemaren eta panpinen arteko konbinazio hirukoitza proposatzen du antzerki konpainiak. Eta zer da, zehazki, Saroben ikusiko duguna? Hau xe, sinopsia: "Ebenezar Scroo-

geren istorioa da, diruarekin obsesionatuta dagoen bankari berekoi eta zekena, maitasunean sinesteari utzi diona. Gau batean, Roberta enpleguatari egun librea kendu ondoren, Scroogeri hil berri den bazkidearen mamua

agertuko zaio: Marley zekena, Honek salbatzeko azken aukera bat eskainiko dio Scroogeri, hiru mamu bisitatzea proposatuz. Ibilbide horretan Scroogek bere iragana berpiztuko du, orainaz jabetuko da, eta espero duen etorkizun tristeari erreparatuko dio. Azkenean, Scrooge pertsona eskuzabala, bizia eta maitagarri bihurtuko da".

Antzezle lanetan ariko dira Na Gomes eta Sandra Fernandez Aguirre. Saioa 17:30ean hasiko da, igande honetan.



Scroogeren istorioa da, diruarekin obsesionatuta dagoen bankari berekoiak. KHEA ZIATER